

DBH 2.mailako GIZARTE ZIENTZIEN PROGRAMAZIO LABURRA

Irakaslea	Ander Genua Parra Txomin Fernández Brieba	Maila	2.maila	Ikasturtea	2020/21
-----------	--	-------	---------	------------	---------

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Gizarte mintegiaren erabakiz, DBH 3.mailako Aro Modernoari dagokion eduki blokea 2.mailan landuko da, eta 2. mailako giza geografiaren eduki bloke gehiena, DBH 3.mailan

OINARRIZKO GAITASUNAK

UNITATEAK

1) Hizkuntza komunikazioa.	1	2	3	4	5	6	7	8		
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.						6	7			
3) Gaitasun digitala.	1	2	3	4	5	6	7	8		
4) Ikasten ikastea	1	2	3	4	5	6	7	8		
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	1	2	3	4	5	6	7	8		
6) Ekimena eta ekintzailtza.	1	2	3	4	5	6	7	8		
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	1	2	3	4	5	6	7	8		

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

Gure komunitate soziala ezagutzea, gizartearen arazoak eta errealitateak ulertzea eta natura, kultura, hizkuntza, artea, historia eta gizarte ondarea baloratu eta errespetatzea.

Informazio iturri desberdinak erabiliz, modu autonomo eta kritikoa hauek aztertzea.

Erdi Aroko eta Aro Modernoko ondare historiko, linguistiko, kultural eta artistikoa baloratu eta errespetatzea, hori kontserbatu eta hobetzeko arduraren gain hartzea.

Geografiaren, Historiaren eta Gizarte Zientzien oinarrizko kontzeptu eta teknikak erabiliz, azterketa eta ikerketa txikiak burutzea.

Gizarte eta kultur historiko nagusienak kronologikoki lekutzea eta haien ezaugarri politiko, ekonomiko eta kulturalak aztertzea.

Giza eskubide eta libertateak, eta legearen aurreko gizakien berdintasuna baloratzea; giza komunitateen aniztasuna estimatzea; norberaren eskubidea eta betebeharrak ezagutzea eta eskubideetatik edo behar diren baliabide ekonomikoetatik gabetuak diren herri, gizatalde eta pertsona pribatuekiko elkartasuna azaltzea.

EDUKIAK

- Erromako zibilizazioa: hedapena, kultura, bizimodua, gizarte...
- Erdi Aroko eremu kristauan: feudalismoaren ardatz politiko, ekonomiko eta sozialak.
- Arte eta kultura. Penintsulako erreinu kristauak.
- Erdi Aroko eremu musulmanean: oinarri politiko, ekonomiko, sozialak. Kultura eta artea, zibilizazio musulmanaren ekarpenak. Al Andalus.
- Aro Modernoa: aldaketa kulturala, errenazimendua eta barrokoa.
- Amerikako aurkikuntzak. Inperio handiak.
- Giza geografia: munduko biztanleria, aspektu demografikoak, hiriak.
- Oharra: Nafarroako historia eta giza geografiari dagozkion edukiak aldian aldiko edukiarekin batera landuko dira.

Nafarroako Hezkuntza Departamentuko **Skolae Berdin Bidean** programan integratutako ikastetxea izanik, programa honen jarduerak eskola programazioetan eta edukietan txertatuta daude.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Erromako gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren ezaugarri nagusiak azaltzea.
2. Arte greziarreko eta erromatarreko lanen ezaugarri nagusiak identifikatzea eta azaltzea, eta espezifikokoak direnak bereiztea.
3. Loturak ezartzea Hispania erromatarreko iraganaren eta orainaren artean.
4. "Aldaketa" eta "jarraipena" kontzeptuak ezagutzea antzinako Erromaren historian.
5. Erresuma germaniarren egoera ekonomiko, sozial eta politiko berria deskribatzea.
6. Europako Goi Erdi Aroaren ezaugarriak azaltzea, ohartuz zer zailtasun dakarren aldi horri buruzko iturri historikoen urritasunak.
7. Antolaketa feudala eta horren ondorioak azaltzea.
8. Erresuma kristauen eta musulmanen bilakaera aztertzea, alderdi sozioekonomiko, politiko eta kulturelei dagokienez.
9. Iberiar penintsulan, konkisten eta erresuma kristauen birpopulaketa prozesuak ulertzea, baita Al Andalusekin zituzten harremanak ere.
10. Erdi Aroan arteak zituen eginkizunak ulertzea.
11. "Krisia" kontzeptua ulertzea, baita haren ondorio ekonomiko eta sozialak ere.

Nafarroa:

12. Baskoien lurraldearen erromanizazio prozesua ulertzea. Aztarna erromatar inportanteenak kokatzea.
13. Nafarroako Foruen jatorria eta berezitasuna ulertzea.
14. Iruñeko eta Nafarroako erresumen eraketa ulertzea. Antso III.a Nagusiaren eta Antso VII.a Azkarraren erreinaldietako gertaera nabarmenak ezagutzea. Historian noizbait Nafarroarenak izandako lurrak identifikatzea.
15. Dinastia frantziarrak identifikatzea. Karlos III.a Prestuaren erreinaldiko gertaera nabarmenak ezagutzea.
16. Nafarroa Gaztelara anexionatzearen ondorioak ezagutzea.
17. Nafarroako Erdi Aroko monumentu nagusiak ezagutzea.
18. Nafarroako kondaira batzuk ezagutzea.

ESTANDAR EBALUAGARRIAK

- 1.1. Mapa bat egiten du Erromaren zabalkundearen etapak azaltzeko.
- 1.2. Alderatzeko taula baten bidez, identifikatzen ditu Errepublikaren eta Erromatar Inperioaren arteko desberdintasunak eta antzekotasunak.
- 2.1. Konparatzen ditu garai greziarreko eta erromatarreko arkitektura eta eskultura lanak.
- 3.1. Iberiar penintsulako mapa bat egiten du, azalduz garai erromatarreko aldaketa administratiboak.
- 3.2. Gaur egun irauten duten erromatarren kultura ondarearen hainbat adibide analizatzen ditu.
- 4.1. "Erromanizazio" hitzaren esanahia ulertzen du, baita horien maila desberdinak ere, eremu geografikoen arabera.
- 5.1. Konparazio taula bat egiten du, Erromatar Inperioko eta erresuma germaniarretako bizimoduarekin (hainbat alderdiri dagokienez).
- 6.1. Iturri historikoak erabiltzen ditu eta ulertzen du zer muga dauden iraganari buruz idazteko.
- 7.1. Gizarte feudalaren ezaugarriak azaltzen ditu, baita nagusien eta nekazarien arteko harremanenak ere.

- 8.1. Islamaren jatorria azaltzen du, baita noraino iritsi den ere.
 8.2. Azaltzen du zer garrantzi izan zuen Al Andalusek Erdi Aroan.
 9.1. Iberiar penintsulako konkista eta birpopulaketa kristauen prozesuak deskribatzeko mapak interpretatzen ditu.
 9.2. Done Jakue bidearen garrantzia azaltzen du.
 10.1. Arkitektura islamikoaren elementu arkitektoniko bereizgarriak marrazten ditu.
 10.2. Konparazio taula bat ezartzen du, arte erromanikoaren eta gotikoaren ezaugarriekin.
 11.1. Azaltzen du zer inpaktu zuen krisi demografiko eta ekonomiko batek Europako Erdi Aroko gizarteetan.

Nafarroa:

- 12.1. Azaltzen du -ain bukaera duten herrien jatorria, eta mapa batean kokatzen ditu.
 12.2. Azaltzen ditu Pompaelo hiriaren eta Andelos erromatar hiriaren ezaugarriak.
 13.1. Azaltzen du Nafarroako Foruaren jatorria eta horren "itun" izaera.
 13.2. Nafarroako erregea aldarrikatzeko zeremoniala irakurtzen du, eta bere ondorioak idazten ditu.
 14.1. Ardatz kronologiko baten bidez, Iruñeko erresumaren jatorria eta Nafarroako erresumaren garapena eta bilakaera azaltzen ditu.
 14.2. Antso III.a Nagusiaren eta Antso VII.a Azkarraren bizietako gertaera inportanteenak azaltzen ditu.
 14.3. Mapa batean, identifikatzen ditu historian zehar noizbait Nafarroako erresumakoak izan diren lurraldeak.
 15.1. Dinastia frantziarrak izendatzen ditu; Karlos III.a Noblearen irudiaren garrantzia azaltzen du.
 16.1. Azaltzen du zein zen Nafarroako erresumaren eta Foruen egoera Gaztelara gehitu ondoren.
 17.1. Done Jakue bidearen historia eta esanahia azaltzen ditu, eta bideko monumentu nagusiak deskribatzen.
 17.2. Iruñeko eta Tuterako katedralen jatorria deskribatzen du, eta horien elementu artistiko nagusiak iruzkintzen ditu.
 18.1. Nafarroako kondaira batzuk kontatzen ditu: sorginak, Teodosio Goñi, Errolanen kanta, Obanosko San Gillen eta Santa Feliziaren misterioa, Fiteroko mairuaren leize-zuloa etab.

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
20	Erroma	12	Feudalismoa eta hiritartzea	10	Amerikako aurkikuntza
13	Islama	12	Hispaniako kristau erresumak	10	Inperio handiak
		9	Erromaniko eta gotiko artea	10	Aro Modernoko gizartea

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

- Metodologiari dagokionez, ikasturtean zehar IK/KI programan, hau da, «Ikasteko Kooperatu / Kooperatzen Ikasi» txertatutako jarduera, estrategia, talde-dinamika, egitura eta teknikak landuko dira.
- Unitate bakoitzaren hasieran, ikasleen ezagutzak zeintzuk diren jakiteko galdetegi bat pasako zaie. Behin hau jakinda, unitatea taldeka landuko da (beti ere IK/KI metodologia erabiliz) ikasketa kooperatiboa bultzatuz.
- Zenbaitetan ikasleek egunerokotasuneko gaien inguruko ikerketa- lanaren bat edo beste, banaka zein talde kooperatiboetan, eta ahal den neurrian ahozko azalpenek garrantzi handia izanen dute.
- Ikas urtean zehar Teknologi berriak erabiliko ditugu, horretarako Drive eta posta elektronikoa ardatz hartuko dira, (ikasle guztiek hezkuntzako korreoa aktibatuta eduki beharko dute). Taldeko lanetarako drive erabiliko da.

- Klaseko dinamika asko baliabide bisualekin eginen dira.
- Erabiliko den metodologiaren helburu nagusienak, ikasleengan pentsamendu kritikoa garatzea izanen da, hauek pentsarazten jarriz, hausnarketak egunerokotasunarekin lotura egitera bideratuz. Irteerak ere eginen ditugu, beti ere ikasturtearen martxaren arabera.
- Argi utziko dira zeintzuk izango diren irakasleak erabiliko dituen ebaluazio eta kalifikazio irizpideak.
- Material didaktikoa: Santillana argitaletxeak argitaratu duen DBH 2.mailarako Geografia testuliburua. Honez gain, euskarri inportantea izango da ere irakasleak planteatutako materiala: lan txostenak, mapak, bideoak, egunkariak eta aldizkari artikuluak, interneteko baliabideak... web gune hau ere erabiliko dugu.
- Metodologiari dagokionez, ikasturtean zehar IK/KI programan, hau da, «Ikasteko Kooperatu / Kooperatzen Ikasi» txertatutako jarduera, estrategia, talde-dinamika, egitura eta teknikak landuko dira.

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK edo BALIABIDEAK

- Kontrolak: Kurtsoan zehar egindakoek notaren %70 osatuko dute. Batezbestekoa kalkulatzeko ezinbestekoa izanen da azterketetan 4 edo gehiagoko nota lortzea.
- Besteak: % 30:
 - * Gelako lana: %5. Kontuan hartuko da: txukuntasuna, epeak errespetatzea, ariketa guztiak agertzea, klasean langile aritzea eta planteatutako diseinua jarraitzea. Ikasgaia gainditzeko ezinbestekoa izango da koadernoak aurkeztea.
 - * Etxerako lana eta taldekako lana: % 10 (adosten diren horiek burutzea eta puntualtasunez ekartzea).
 - * Jarrera: % 10. Jarrera egokia izatea ezinbestekoa izango da irakasgaia gainditu ahal izateko: Portaera egokia, errespetua mantentzea (materialarekiko, langileekiko, ikaskideekiko eta abar.), puntualtasuna, parte-hartze aktiboa izatea....
 - Euskararen erabilera: %5. Irakaslearekin zein ikaskideekin klasean euskaraz egitea baloratuko da.

Departamentuko erabakia ikasgai eta maila guztietarako: ikasgai bateko ebaluazioa gainditzeko gutxienez 5 behar da, nota hori baino gutxiago atera duten guztiek dagokien atala suspendituta izango dute eta beraz, berreskuratu beharko dute.

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENKOAK

Borobiltzea:

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

- **IKASTURTEAN ZEHAR:** Ebaluazio bat gainditzen ez denean, irakasleak prestatutako berreskurapenerako plangintza proposatuko zaio ikasleari. Honetan errefortzu lanak edota berreskurapenerako azterketa proposa daitezke. Gehienez ere 5 lortuko du.
- **NAHIKOTASUNA:** Nahikotasun azterketa ikasle guztiek egiteko aukera izanen dute, edozein dela eta suspendituriko ebaluazio kopurua. Honen bitartez gainditutako ikasleak,

gehienez ere 5 lortuko du (azterketen bataz besteko portzentaiaren arabera).

- Nota finala: ebaluazioko noten bataz bestekoarekin osatuko da. Ikasturte amaieran ebaluazio guztiak gaituak egon beharko dira edo gutxienez 4tik gorako nota (berreskurapena egin ondoren) izan behar dute batez bestekoa egiteko.
- Ez ohiko deialdia: Ikasgaia gaituzeko, azterketa bat egingo da irakasleak emandako jarraibide edo plangintzaren arabera. Horren balioa %100a da. Azterketa gaituz gero, gehienez ere 5eko kalifikazioa lortuko da (salbuespenak salbu).

KANPOKO EBALUAZIOA

OHARRA: Hau guztia hasierako plangintza da, malgutasunez jarraituko dena. Ikasturtean zehar ikusten bada komeni dela zerbaite aldatzea, zilegi litzateke.